

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO IRAKASLE ETA
IKERTZAILEEN MUGIKORTASUNERAKO 2010eko LAGUNTZEN DEIALDIA
363/2010 Eranskina**

Ikerketa Batzordeak, Ikerketarako errektoreordeak proposatuta, iaz egokitzen jo zuen hainbat jarduera abian jartzea irakasle eta ikertzaileen prestakuntza, eguneratzea eta haien arteko harremanak sendotzeko, beste unibertsitate batzuetan edo Nafarroako Unibertsitate Publikotik kanpoko ikerketa zentroetan edo unibertsitateetan bisita edo egonaldi laburrak eginez. Hori Mugikortasunerako lehen deialdian gauzatu zen, zeinak eskaera kopuru handia izan baitzuen eta, aurrekontuen aldetik gauzatu ahal den neurrian, mantendu eta sustatu beharra dagoela uste baita, hartutako esperientziaren arabera, ezaugarrietako batzuk hobetuz. Aurreko deialdian bezalaxe, sustatu eta lagundu nahi diren jarduerak ikerketa-profil garbia eduki behar dute eta, ondorioz, ez dira hemen sartzen irakaskuntza jarduerarekin lotutako jarduerak.

1.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen oinarriek arautuko dute 2010eko ekitaldirako Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasle eta Ikertzaileen Mugikortasunerako Laguntzen deialdia.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle eta ikertzaileek beste Unibertsitate edo Ikerketa Zentro batzuetan egiten dituzten bisita edo eta egonaldiak finantzatu edo batera finantzatzea du helburu deialdi honek, ikerketa-helburu argiarekin. Bisita eta egonaldi horien artean sartzen dira, lehentasunez, baina ez haiek bakarrik, honako hauek:

- Teknika esperimental berriak ikastea edo esperimentuak edo neurketak egitea.
- Baterako ikerketa-proiektuak prestatu edo haien jarraipena egiteko bilerak
- Baterako argitalpenak prestatzeko bilerak
- Bibliografia, hemerografia eta artxibo funtsak eta esangura bereziko datu-baseak kontsultatu eta aztertzea
- Ikastaro aurreratuetan parte hartzea

Deialdi honetatik kanpo gelditzen da biltzar zientifiko, sinposio eta abarretara joatea eta horietan parte hartzea. Edonola ere, taldeak Sustatzeko Planaren funtsekin finantzatzen ahalko dira, eta, kasu batzuetan, Ikerketarako Errektoreordetzak ere finantzatzen dituen Bidaia Poltsekin. Halaber, deialditik kanpo gelditzen da biltzar edo sinposioekin lotutako ikastaro eta tutoretzetan parte hartzea.

2.- NORENTZAT

Mugikortasunerako laguntzak lanaldi osoko kontratua duten Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle eta ikertzaileentzat dira. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira berariaz Prestakuntzan ari diren ikertzaileak, Ikertzaileen Estatutuak (EPIF, ED 63/2006) arautzen dituenak, bai eta LOUko 83. artikulua babesean egindako kontratuen kontura eta ikerketa talde edo proiektuen kontura kontratatutako langileak ere.

Laguntzak eskatzen dituztenek Unibertsitateko Ikerketa Talderen batean erroldatuta eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan zerbitzu aktiboan egon behar dute deialdia ixten den egunean.

3.- LAGUNTZEN XEDE DIREN JARDUERAK

3.1.- Deialdi honen xede diren laguntzen bidez 2010. urtean zehar egin diren edo egingo diren egonaldiak ordainduko dira. 2009an hasi eta 2010ean amaitzen diren jarduerak ere kontuan hartzen ahal dira.

3.2.- Diruz laguntzen ahal diren jarduerak hauek dira:

1. Hilabeteko edo hilabete baino epe luzeagoko eta hiru hilabete baino epe motzagoko egonaldiak, nahitaez gonbit baten bermea dutenak, egonaldiaren xedea den arloan entzute handiko unibertsitate nazionaletan edo atzerriko unibertsitateetan edo Ikerketa Zentroetan.
2. Iraupen motzagoko beste egonaldi batzuk, bai eta Ikerketa Batzordearen iritzian aipagarriak diren ikerketa prestakuntzako jarduerak edo eguneratze jarduerak ere, baldin eta behar bezalako bermea badute.

4.- IRIZPIDEAK ETA BATERAEZINTASUNAK

4.1. 3.1 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz egingo diren edo egin diren jarduerari emango zaizkie laguntzak.

Egonaldia bakarrik partzialki 2010. urtean egiten bada, urte horri dagozkion gastuen zenbatekoa baino ez da eskatuko.

4.2. Emango diren laguntzek eta haien zenbatekoak garaian garaiko aurrekontuak ezarritako mugak izango dituzte, eta, nolana ere, emango diren laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu 2010. urteko aurrekontu-ekitaldirako kontzeptu horren pean ezarritako gehienezko zenbatekoa.

4.3. Nolanahi ere, laguntza bakarra emango da deialdi, baimen akademiko eta pertsona bakoitzeko.

4.4. Laguntza hauek bateraezinak dira Unibertsitateen gaietan eskumena duen Ministerioak deitutako Ikerketako Giza Baliabideen Mugikortasunerako laguntzekin.

4.5 Laguntza hauek bateragarriak dira beste laguntza edo finantzabide iturri batzuekin, betiere, jasotako laguntza guztien batura ez bada egindako gastuen zenbatekoa baino handiagoa. Jarduerarako jasotako laguntza guztiak justifikatzea eskatuko da.

5. AURREKONTUAREN ZENBATEKOA ETA MUGAK

5.1. 2010eko gastuen aurrekontuan deialdi honetarako aurreikusitako gehienezko zenbatekoa 47.000 € da.

5.2 Emandako laguntzak kalkulatzeko, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren Giza Baliabideetako azken Mugikortasun deialdian ezarritako hileko gehienekoak aplikatuko dira.

5.3 Hainbat epetan banatutako egonaldiari dagokionez, osotara 3 hilabeteko iraupena izango du gehienez, eta joan-etorri bakarra finantzatzen ahalko da soilik.

6. ESKAERAK BETETZEA

6.1. Eskatzaileek Ikerketa Zerbitzuan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikerketako web-orrialdean eskuragarri dituzten inprimakiak bete beharko dituzte. Lehenengo faseko aurkezpen-epea 2010eko ekainaren 11n bukatzen da.

Dagokion aurrekontuko kontusailean kreditu gerakinik baldin badago, bigarren epe bat irekiko da oinarri hauetako zortzigarren idatz-zatian adierazitakoarekin bat.

6.2. Eskaerak Unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira horretarako ezarritako inprimakiaren bidez, eta eskaera-orriari dokumentazio hau erantsiko zaio:

- a) Egin beharreko edo egindako jardueraren txostena (1.000 hitz gutxi gorabehera), destinoko zentroa egonaldiaren helburuei egokitzen zaiola adierazten duen justifikazioarekin.
- b) Destinoko zentroaren gonbit edo onarpenaren jatorrizko dokumentua. Eskaerarekin batera aurkezten ez bada, baldintza gisa eskatuko da laguntzaren behin betiko esleipenerako.
- c) Egonaldiaren gutxi gorabeherako aurrekontua eta eskatutako diru-kopurua.
- d) Erabiltzen ahal diren beste finantzabide-iturri batzuen justifikazioa, bidezkoa bada.
- e) Emandako baimen akademikoa edo, bidezkoa bada, baimenaren tramitazioa hasi izanaren ziurtagiria.

7. BALIOESPEN IRIZPIDEAK

Lehentasuna izango dute baldintza hauek betetzen dituzten laguntzek:

- Egonaldia hilabetekoa izatea gutxienez.
- Destinoko zentroak entzute handia izatea egonaldiaren xedea den gaian.
- Egonaldia NUPekoa ez den beste erakunde batekin batera finantzatzea, eta, bereziki, Unibertsitate edo Ikastegi hartzailearekin.
- Eskatzailea ez dadila onuradun izan aurreko Mugikortasunerako deialdian edo Irakasleen Gaietarako Errektoreordetzak Irakasleak Prestatzeko laguntzetarako egindako azken deialdian.
- Eskatzaileak Ikerketako Plan Nazionalak finantzatutako proiektu batean parte hartzea edo ikertzaile arduraduna izatea edo, Ikerketa Batzordearen iritzian, garrantzi bereziko kontratu bat edukitzea.

8. LAGUNTZAK ESLEITZEA

8.1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketa Batzordeak laguntzak emateko proposamena egin eta banakako zenbatekoa ezarriko du, proposatutako jarduerak duten interesa, balioespen irizpideak eta dauden baliabideen optimizazioa kontuan hartuta.

8.2. Eskerak aurkezteko epea amaitu ondoren, errektoreak, Ikerketa Batzordeak proposatuta, mugikortasun laguntzak esleitzeko ebazpena emango du bi hilabeteko epean, eskerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Laguntzak esleitzeko ebazpen honetan aipatuko dira esleipen-hartzaileen izenak eta emandako laguntzen zenbatekoa, bai eta baztertuak izan direnak edo ezezkoa jaso dutenen izenak ere eta baztertuak izateko edo ezezkoa jasotzeko arrazoiak ere bai.

Aurkeztutako eskabideak behin betiko ebatzi ondoren, aurrekontuan oraindik dirua badago, eskabideak aurkezteko epea zabaldu ahalko da, Ikerketa Batzordeak erabakia hartuta. Laguntzak esleitzeko ebazpen berean azalduko da zabalitzen dela. Ikerketa zerbitzuak ahalik eta hedapen handiena emango dio eskabideak aurkezteko epea zabalitzen delako berriari.

8.3. Ebazpena eman ondoren, Ikerketa Zerbitzuak banan-banan jakinaraziko die esleipen-hartzaileei laguntza eman zaiela, eta laguntzaren zenbatekoaren eta laguntza justifikatu eta kobratzeko beharrezkoak diren tramiteen berri ere emango die. Era berean, baztertuei inguruagar honen eta baztertuak izateko arrazoiaren berri emango zaie.

9. LAGUNTZAK TRAMITATZEA ETA JUSTIFIKATZEA

9.1. Laguntzen onuradunek Ikerketa Zerbitzuan aurkeztu beharko dituzte, egonaldia bukatu eta hilabeteko epean eta, edozein kasutan, 2010eko abenduaren 10 baino lehen:

- Egonaldi osoko gastuen baterako likidazioa. Batera finantzatutako zatia edo jaso diren beste laguntza batzuk ere sartuko dira, bidezkoa bada.
- Laguntza justifikatzen duten gastuen jatorrizko ordainagiriak. Ez dira onartuko ordainagiriarekin justifikatu gabeko ordainketak, emandako diru-kopuru osoaren % 25etik gora.
- Erabilitako garraiobideen jatorrizko ordainagiriak. Bidaiak Interneten bidez kontratatzen badira, ordainagiria bidaia erreserbatzean eskatu behar da.

Dokumentazioa egun hori igaro ondoren aurkezten bada, laguntzak ez dira tramitatuko.

9.2. Ikerketa Zerbitzuan aurkeztutako gastuen justifikazioa Kontabilitate Atalari igorriko zaio Ikerketarako errektoreordeak ontzat emanda, laguntza baimendutako xederako erabili dela egiaztatu ondoren. Kontabilitate Atalak laguntzaren ordainketa osoa tramitatuko du, justifikatuta badago.

9.3 Laguntzak xede duen egonaldia edo jarduera Nafarroako Unibertsitate Publikoak kudeatutako beste funts batzuekin batera finantzatzen bada, gastuen txostena batera eta osorik aurkeztu beharko da, eta aipatu beharko da zein kontusaili egozten zaion gastu bakoitza.

10. ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

10.1. Justifikatutako edozein arrazoi dela medio eskatzaileak ezin badu aurreikusitako jarduera egin edo iraupen laburragoa badu, Ikerketa Zerbitzuari horren berri eman beharko dio berehala.

10.2. Onuradunak laguntza onartzeak berarekin dakar deialdi honetan ezarritako arauak onartzea eta baita Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere erabilpenaren jarraipen zientifikorako ezartzen dituenak ere.

10.3. Onuradunak Ikerketa Zerbitzuari igorri beharko dio laguntzaren gainean eskatzen zaion edozein txosten.

10.4. Deialdiko oinarriak betetzen ez badira, edo datuak ezkutatu, aldatu edo haietan iruzur egiten bada, laguntza kendu edo eten ahalko da. Hala gertatzen denean, doakionak hartutako dirua edo hartzeko duena itzuli beharko du.

10.5. Laguntza emateak ez du berez ematen onuradunak lehendik zituen betebeharrak ez joateko baimena. Baimen hori behar den baimen akademikoaren bidez eta ezarritako bideetatik eskatu behar da.

11. ARGITARATZEA

Deialdi honen oinarriak Unibertsitatearen webgunean argitaratuko dira. Halaber, oinarriek baliabide elektronikoen bidez ahalik eta hedapen handiena izan dezaten arduratuko da Ikerketarako Errektoreordetza.

12. ERREKURTSOAK

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren 6.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta bere aurka, aukeran, berraztertze errekurtoa aurkez daiteke errektorearen aurrean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtoa Nafarroako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, hilabeteko epean lehenengo kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarrenetan, biak ere ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

**IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN
MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZEN ESKAERA**

DATU PERTSONALAK

Lehen deitura		Bigarren deitura	
Izena		N.A.N.	
Helbidea			
Herria/Hiria	Posta Kodea	Probintzia	Telefonoa

DATU PROFESIONALAK

Maila
Ikerketa taldea

PRESTAKUNTZA JARDUERA

Zein prestakuntza-jardueratarako eskatzen den laguntza:
Zein erakunde eta tokitan egingo den: Unibertsitatea edo zentro zientifikoa Hiria: _____ Herrialdea: _____
Jardueraren iraupena: Noiztik _____ Noiz arte _____
Aurrekontua: (azken diru-kopurua. Beste dokumentu batean xehakatu)

ESKAERAREKIN BATERA ERANSTEN DIREN DOKUMENTUAK (bete beharrekoak)

- Egin beharreko edo egindako jardueraren txostena eta zentro hartzailearen egokitasunari buruzkoa.
- Unibertsitate edo zentro zientifikoko hartzaileen jatorrizko gonbita
- Egonaldiaren gutxi gorabeherako aurrekontua eta eskatutako diru-kopurua
- Beste finantzabide-iturri batzuen justifikazioa
- Emandako baimen akademikoa edo haren tramitazioa hasi izanaren frogagiria

Iruñean, 2010eko _____aren _____ (e)(a)n

Stua.: _____

IKERKETA ZERBITZUA

